

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostia Kirolak *Jokoak* programaren hirugarren edizioa egingo du

Uztailaren 18an, 12 klub eta 14 kirol-mota bilduko dira hiriko zazpi esparrutan, eta herritar guztiei irekitako doako jarduerak egingo dituzte.

Donostia Kirolak, *Jokoak* programaren hirugarren edizioa egingo du uztailaren 18an, larunbatarekin. Programa horrek hiria aire zabaleko kirol-eremu handi bihurtzen du, eta helburu du herritarrei hurbiltzea hedabideetan oso presentzia handia ez duten kirol-motak, Donostiako kirol-sarearen aberastasunari eta aniztasunari balioa emanez.

Jardunaldi hartan, hiriko zazpi esparru erabiliko dira: Sagues, Bulebarra, Zuloaga plaza, Klub Nautikoa, Urumea ibaia, Zurriola hondartza eta Antiguako tunela. Doako jarduerak egingo dira leku horietan, jendearentzat irekiak, 14 kirol-mota ezagutzeko eta praktikatzeko aukera emango dutenak.

Donostia Kirolak hiriko kirol klub, federazio eta eragileekin batera antolatu du programa, eta 12 erakundek parte hartuko dute. Honako diziplina hauek hurbilduko dizkiete herritarrei: arrauna, mahai-tenisa, arku-tiroa, badminton, 3x3 saskibaloia, borroka-arteak, gimnasia erritmikoa, hockeya, waterpolo, eskalada, ecuavoleya, futvoley, eskrima eta eskrima egokitua.

Kiroleko zinegotzi Iñaki Gabarainek azpimarratu duenez, «*Jokoak*-ek erakusten du Donostiako kirola diziplina ezagunenetatik baino askoz ere harago doala. Urte osoan aparteko lana egiten duten klubak eta erakundeak ditugu, eta ekimen horrek erakusleho bat eskaintzen die beren burua ezagutarazteko eta beren jardura herritarrei hurbiltzeko».

Gabarainek, gainera, ekimenaren izaera parte-hartzailea azpimarratu du: «Edozeinek kirol berriak deskubritu, probatu eta haietaz gozatu ahal izatea nahi dugu. Kirola kalera ateratzea hiria egiteko, beste jende batekin egoteko guneak sortzeko eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko modu bat ere bada».

Kirolaren urteko jaialdi moduan finkatua, *Jokoak*-ek hain masiboak ez diren diziplinen ikusgarritasuna bultzatzen jarraitu nahi du, eta kirol-kluben eta herritarren arteko lotura indartu, egun batean zehar hiri-esparruak tokiko kirolaren erakusleho handi bihurtuz.

Klubak eta erakunde laguntzaileak

Prentsa oharra

Nota de prensa



Edizio honetan honako hauek hartuko dute parte: Fortuna KE, Gimnasia Erritmikoa Donostia, Judo Club San Sebastián, Gipuzkoako Badminton Federazioa, Gipuzkoako Hockey Federazioa, Ur-Kirolak, Futvoley Donostia, Donostiako Urpolozaleak, Diarco, Basket Kalean eta Kichwa Otavalo Kultur-Kirol Elkartea.

PROGRAMA OSOA

1. ALDEA: SAGUES (GROS) 10:00-19:00

- ESKRIMA & ESKRIMA EGOKITUA & MAHAI-TENISA

- Laguntzailea: Fortuna K.E.

Fortuna Kirol Elkartearen eskutik, eskrimaren hiru modalitate olinpikoetatik bi erakutsiko dira: sablea eta ezpata.

Bi saio izango dira, bata goizean eta bestea arratsaldean, egitura berarekin (13:30etik 15:45era etenaldi bat egingo da): eskrimari buruzko azalpenak, mugimenduen eta ekintzen erakustaldia eta erakustaldi-borroka bat, lehiaketa olinpikoko sistema elektronikoa baliatuta. Bigarren zatia, parte-hartzaileagoa izango da. Nahi dutenek eskrima praktikatu ahal izango dute, lau laguneko taldeetan (bi bikote). Gazteenek sablea erabiliko dute, eta helduek, ezpata. Une oro, begiraleak haiekin egongo dira, zer-nolako mugimendu egin behar dituzten azaltzeko, bai eta arbitro-lanak egiteko ere.

Gauza bera egingo da eskrima egokituarekin, gurpil-aulkian.

Fortuna KE arduratuko da, baita ere, mahai-teniseko eremua dinamizatzeaz. Kasu honetan ere bi saio izango dira, bata goizean eta bestea, arratsaldean. Kirolaren arauak azalduko dira, bai eta ping-pong herrikoia eta mahai-tenis kirol olinpikoaren arteko aldea ere. Atal honetan, erakustaldi bat egingo da entrenamendu-robotarekin.

Saio bakoitzaren bigarren zatian, txapelketa bat izango da, doakoa eta partaidetzakoa: binakako partidak eta binakako partida mistoak egingo dira. Eta jardunaldia ixteko, joko dibertigarri bat proposatzen da: erruleta-Fortuna.

- BADMINTON

- Laguntzailea: Gipuzkoako Badminton Federazioa

Gipuzkoako Badminton Federazioak kirol-mota horretarako erreserbatutako esparrua antolatuko du Sagueseko zabalgunean. Bi jokalaria profesionalen parte-hartze bereziaz gozatzeko aukera izango da.

Prentsa oharra

Nota de prensa



10:30etik 12:00etara "Joka ezazu txapeldun baten moduan" jarduera egingo da: adin guztietarako erraketa-jokoak, begiraleek eta kirolariek gidatuak. 12:00etatik 13:30era, erakustaldi-txapelketa txiki bat egingo da.

Arratsaldeko saioa 14:30ean hasiko da, eta hainbat erakustaldi-partida egingo dira. 16:30ean nahi duenak parte hartu ahal izango du kirolari profesionalei puntu bat irabazteko erronkan. 17:00etan goi-mailako jokalarien esperientziei buruzko hitzaldi labur bat egingo da. Jardunaldiaren amaieran, erraketa eta bolantea baliatzen dituen punteria eta trebetasun jokoak izango ditugu, kirol-materialaren zozketa bat eta autografoen sinadura.

- HOCKEYA
- Laguntzailea: Gipuzkoako Hockey Federazioa

Gipuzkoako Hockey Federazioak hockey puzgarriko pista bat jarriko du Sagueseko zabalgunean. Bertan, goizeko eta arratsaldeko saioetan (10:00-13:00 eta 15:30-19:00), hainbat jarduera egingo dira: hockeya ikasten hasteko jolasak, txapelketak, e.a.

- ECUAVOLEYA
- Laguntzailea: Kiwcha Otavalo Kultur-Kirol Elkarte

Ecuavoley a oso kirol ezaguna da Ekuadorren. Boleibolen aldaera bat da, eta hiru jokalarik osatzen dute talde bakoitza. Askotan hondartzetan egiten da, eta ospakizun eta ekitaldi komunitarioen osagaia da.

- 3X3 SASKIBALOIA (Saguesko kaiola)
- Laguntzailea: Basket Kalean

Saskibaloia eta 3x3 kaleko saskibaloia sustatzeko jarduerak Sagueseko Kaiolan, Basket Kalean-en eskutik, 10:00etatik 20:00etara.

2. ALDEA: BOULEVARD - 16:00 – 20:00

- BORROKA-ARTEAK
- Laguntzailea: Judo Club San Sebastián

Judo Club San Sebastianek, Bulebarren instalatutako tatami batean, borroka-arten eta kontaktu-kirolen programa bat eskainiko du. Nahi duenak parte har dezake.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Lau mota hauetako bakoitzarekin (judoa, kendoa, aikidoa eta kick boxinga), 15 minutuko erakustaldia egingo da, eta, ondoren, beste 15 minutu izango dira, publikoak parte har dezan.

3. ALDEA: ZULOAGA PLAZA - 10:00 – 14:00

- ARKU-TIROA (10:00 – 14:00)

- Laguntzailea: Diarco KE

Diarco klubak hainbat diana izango dituen esparru bat jarriko du Zuloaga plazan, eta kirol-mota hori ezagutzeko eta probatzeko aukera emango die hurbiltzen diren pertsona guztiei.

- DONOSTIAKO GIMNASIA ERRITMIKOA (16:00 – 20:00)

- Laguntzailea: Gimnasia Erritmikoa Donostia KE

Gimnasia Erritmikoa Donostia klubak tapiz bat jarriko du Zuloaga plazan, hainbat erakustaldi egiteko: jauziak, oreka-arietak eta akrobaziak, bai eta elementuak baliatzen dituzten arietak ere (soka, uztaiak eta zintak). Ikusleek ere parte hartu ahal izango dute, elementuekiko arietak egiten, klubeko begiraleek gidatuta.

4. ZONA: DONOSTIAKO KLUB NAUTIKO ERREALA: 16:00 – 19:30

- WATERPOLOA

- Laguntzailea: Donostiako Urpolozeak

Eremu horretan, Nautikoaren ondoan, waterpoloari lotutako txapelketak, jokoak eta arietak egin ahal izango dira, interesa duen edonork parte hartu ahal izango duela.

5. ALDEA: URUMEA - 17:00 – 19:30

- ARRAUNA

- Laguntzailea: Ur Kirolak

Loiolako pantalanetik, Ur Kirolak arraun-klubak aukera emango du arraunketaren oinarriak ezagutzeko, eta familiarizazio-saioetan eta ibaian egingo diren jolasetan parte hartzeko.

6. ALDEA. ZURRIOLA HONDARTZA - 16:00 – 19:00

- FUTVOLEIA

Prentsa oharra

Nota de prensa



- Laguntzailea: Futvolei Donostia

Donostiako Futvolei Kluba arduratuko da jarduera hori dinamizatzearaz Zurriola hondartzako boleibol-pisten eremuan. Lehen zatian, entrenamendu-ariketen erakustaldia izango da; bigarrenetan, erakustaldi-partidak; eta hirugarrenetan, parte hartzeko aukera ematen duten jarduerak.

7. ALDEA: ANTIGUAKO TUNELA – 10:00 – 14:00

- ESKALADA
- Laguntzailea: Fortuna KE

Fortuna KEk bi gune antolatuko ditu Antiguako tunelaren alde horretan, goizean zehar.

Ondarretako hondartzatik igotzen den horman hainbat bide jarriko dira eskalada egiteko; tunelaren horman, berriz, rappela egingo da pasealekuraino. Edonork parte hartu ahal izango du ekintza horietan, eta langile espezializatuek gidatuko dituzte.